

Kattalin Zurutuza Eskisabel

E maila • 1 saria

Kattalin naiz eta Beasaingo Ikastolako LH6. mailan nago. Asko gustatzen zaizkit animaliak eta landareak, irakurtzea eta jende berria ezagutzea. Ipuin eta bertso hauekin munduan kezkatzen nauten gaiak salatu nahiko nituzke, ea egunen batean mundiu hobe bat dugun.



BESTE ALDEAN

Martxoak 18

Denbora igaro da Afrika utzi genuenetik. Espainiara goaz bizi hobe baten bila, gure herrialdea gerran baitago. Ama, nire anai zaharra Moussa, eta Awa nire ahizpa txikiarekin nago. Ni Adama naiz. Patera batean goaz, beste hirurogei pertsona ingururekin. Esan didatenez Gibraltarren hartuko dugu lur. Janari gutxi dugu, eta denon artean banatu beharra, gauak hotzak dira, eta batzuetan ekaitzak gogor jotzen du. Gutxi geratzen da Gibraltarrera iristeko.

Martxoak 20

Gaur hartu dugu lur Gibraltarreko lurretan, eguraldi nahiko ona egiten du eta eguzkia ikusten da. Iritsi garenean harrituta geratu naiz, denek azala zuri-zuria baitute, gaixorik daudela dirudi. Eraikinak telebistan ikusten direnak baino askoz txikiagoak dira. Ni, Moussa eta Awa ingurura begira gaude. Amak esan digu:

-Maiteak, hemendik aurrera bidaia oraindik gogorragoa izango da, batzuetan janaria lortzea zail izango dugu baita lotarako edo deskantsatzeko tokiren bat izatea. Saiatu orain indarrak hartzen hemengo herritarrek gu bezala bidean dauden pertsonentzat prestatutako egoitza honetan. Deskantsatu bihar ekingo diogu bideari beste batzuekin batera.

Hirurok kezkatu eta urduritu egin gara amak esan digunarekin baina berak esandakoa betetzen saiatu gara.

Martxoak 21

Amak esan bezala gaur ekin diogu berriro Europarako bideari, Andaluzia zeharkatzen hari gara, autobus zahar baten barruan. Dena zikin dago eta nik uste baino askoz gehiago gara Europarako amets honetan. Amari galdetu diot nora gindoazen, eta hala erantzun dit:

- Frantziara goaz, Adama- eta erantzun honekin beste galdera bat etorri zait burura.

- Eta, Frantzia non dago?

- Espainia zeharkatu behar dugu iristeko, urrun dago.

- Zenbateko urrun ama? Nekatuta nago

- Hobe zenuke isilik egon- Erantzun dit azkenean amak bera ere nekatuta.

Amaren erantzuna ikusita ingurura begira jarraitzea erabaki dut. Ez zaizkit paisaiak gustatzen, nahiago dut nire herria.

Apirilak 4

Gaur gauza izugarri bat egin dugu: kamioi batean sartu gara, baina baimenik gabe. Nola izan den kontatuko dizuet: Egunaren hasieran oinez abiatu gara, baina, handik gutxira gasolindegia bat ikusi dugu, eta han jakiz beteriko kamioi handi bat. Helduak elkarren artean hizketan hasi dira eta bukatu dutenean amak esan digu:

- Kamioi horretan bidaiatuko dugu.
- Baina hori zuzena al da?- galdetu diogu.
- Zuek egin nik esandakoa!

Amari kasu egin eta kamioian sartu gara korrika gidaria etorri baino lehen, jende gehiago ere sartu da, baina hortik ordu batzuetara, gidariak harrapatu egin gaitu eta kamioitik bota. Hau zorte txarra! Oinez jarraitu behar izan dugu, nekatuta nago. Behintzat gidariak Guadalajaran utzi gaitu.

Apirilak 12

Oinetan babak atera zaizkit. Kamioiaren pasartea gertatu zenetik oinez egin dugu bide guztia. Oin bakoitzean gutxienez hamabost dauzkat, Moussa ere antzeko dabil baina Awa ederki dago, hiru urte dauzka eta amak bizkarrean daramalako. Gu ez gaitu eramaten, nik hamabi urte bait ditud eta Moussak hogeia. Egun asko da idazten ez dudala, baina, aurreratuko dizuet jada Soria eta Errioxa artean gaudela. Euskal Herrira iristen ari gara, asko dugu ibiltzeko. Laburtzeko hau izan da idatzi ez dudan tarte honetan egin duguna: ibili, ibili, ibili, kamioetan sartu, hotza pasa, pixka bat jan, lo uzten diguten tokietan, ibili, ibili, ihes egin, ibili...

Europa ez da pelikuletan ikusten dugun bezalakoa. Jende zintzoa dago, janaria eta arropak ematen dizkigutenak, baina baita jende gaiztoa ere. Hemendik bota nahi gaituen jendea.

Apirilak 22

Astebete pasa da Euskal Herrira iritsi ginenetik, eta gaur iritsi gara Frantziako mugara. Frantziara iristean gure bidaia bukatuko da. Baina ez digute igarotzen utzi nahi, ez dut zergatia ulertzen. Gure aurretik zeuden zuriei ez die trabarik jarri baina gu ertzero bota gaituzte eta ez digute pasatzen utzi. Ezkutuan egin beharko al dugu hau ere? Zer kalte egin genezake? Gaur mugan egingo dugu lo. Irunen eman digute lotarako tokia, janaria eta arropak, hemen hotz egiten du eta.

Apirilak 23

Buruan galdera bat daukat etengabe biraka : Zer dago mugaren beste aldean ez ikusten uzteko? Laster jakingo dut, seguru nago. Nire anai Moussak dio berak mugan dagoen ibaia, uste dut Bidasoa deitzen diotela, igerian igaro dezakeela, seguru dago, baina amak ez dio uzten, ez du nahi Moussari ezer gertatzerik ez eta gu banatzerik. Aterpetxean jarraitzen dugu.

Apirilak 25

Gaur egun tristea da. Atzo Moussa goizaldean ibaia zeharkatzen saiatu zen Gain aterpetxean ezagututako lagunarekin batera amari ezer esan gabe. Saiakeran Bidasoa ibaian ito zen eta Gain etorri zitzaigun gertatu zenaren berri ematera. Aterpetxekoek lagundu digute eta poliziari abisatu diete. Agur Moussa.

Maiatzak 1

Sei egun igaro dira Moussa hil zenetik. Bere falta sumatzen dut, gauetan kontatzen zizkidan ipuinen falta, bere irribarrearen gozotasuna ... triste nago. Amak, eguna negarrez ematen du, guretzako mundu berri baten bila, semea galdu du. Eta orain zer?

Ez dakit zenbat denbora egon beharko dugun hemen, harrapatuta. Ezin dugu atzera egin, ezta ere aurrera ere, baina nire buruan galdera bakarra dago berriro ere biraka, ZER DAGO IBAIAREN BESTE ALDEAN?